Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

174 zenbakia
2016 **azaroa**

Prest!

BERBETAN: **OLATZ ARTEAGA CABEZA** IKERLARI DOKTOREA

ERREPORTAJEA: **JAI EREDUA AZTERGAI** BARKUA: **PHYSIS VERSUS NOMOS**

TOKIKOM

prest174web.indd 1 30/11/16 15:26

168-169-170-171-172-173-

Prest! izan

Harpidetu urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu edota norbaiti bidaltzea nahi baduzu, bete ondoko datuak eta igorri egizkiguzu.

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal 42
Deustua 48014
94 447 10 42

EDO HONA:
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Harpidetza Txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:

Babesleak

BIHOTZ ALKI DANTZA TALDEA

bekoerri kultur elkartea

MIKELDI DANTZA TALDEA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

berbaizu euskaraelkartea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

PARE HAUTSI DITZAKEN KATEAK

Deustu ikastetxea Haur eta Lehen Hezkuntza

ELORRI Bertso Eskola

deustuko gazte asanblada

ernai Deustua

erraldoien artean konpartsa

intxixu kultur etxea

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

174 zenbakia
2016ko azaroa

aurkibidea

Maitane Muñoz eta Irati Antepara — **Iritzia** — 4

Gerardo Sanz Enguita — **Gurera etorria** — 5

e erreportajea — jai eredua aztergaia — 6

Ikasturte berriarekin batera, Deustuko Zirikatzen! kolektiboak bere proiektu berria jarri du martxan, "jai ereduaren inguruko hausnarketa".

Deustu eskola — **Eskolak** — 10

Gerardo Bilbao, futbolari, txapeldun eta erbesteratu politikoa — **Behin batean** — 12

Autodefentsa feminista tresna eta giltza — **Artikulua** — 14

b berbetan — OLATZ ARTEAGA CABEZArekin — 16

Ume jaioberriei heriotza eragiten dieten gaixotasunak ikertu ditu Olatzek. Orain, Alfonso Martin Escudero Fundazioarena eskaini diotelako San Frantziskon bere tesiaren ikerlanarekin jarraitzeko.

Deustuibarrako zama-makina, 1951 — **Irudiak berbetan** — 21

harkua bete herba — 24

DISPERTSIOA Deustu salatzen du

SAREKADA Klik eta klik

PINTXODROMOA La Parra taberna

KULTUR TXOTX Berta Alcalde Arrizabalaga eta Luisa Ledesma

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
DEUSTUA 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
www.facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Lur Mallea
Erredakzioa: Jon Antolin, Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez
Kolaboratzaileak: Maitane Muñoz, Irati Antepara, Berta Alcalde Arrizabalaga, Izaskun Araluzea Itza, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola
Argazkiak: Javi Garcia - Iñigo Azkona
Publizitatea: Ninbe Moreno
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

prest174web.indd 3 30/11/16 15:26

Irati Antepara
ikaslea eta bizizalea

Idolo berriak

Azken egunotan Iparraldeko bertsolari txapelketako Xilaba finala jokatu da Baionan, Lauga aretoan. Hasierako txaloetatik azkenengo agurrera arte, bertsolari eta bertsozaleen arteko giro ikaragarria bizi izan zen.

Egia da bertsolaritza baztertzen joan den atala izan dela Euskal Herrian, gure herriaren hain ikur garrantzitsua izanda. Baina oraindik, bertso-eskola askotako gazteak jo eta ke ari dira bertso munduan gogo izugarriekin sartzen.

Ni neu, Deustuko bertso-eskolan hasi nintzen duela urte batzuk. Tristea da, ordea, hasieran talde nahiko handia izatetik, bi edo hiru pertsonako talde bat izatera pasatzea. Hainbat gaztek bide hau uztearen arrazoia gaur egungo egoera da. Futbolak, telebistako programek... duten izugarrizko garrantziak inguruan ditugun gauza ederrenak galtzera garamatza. Eta benetan oraindik kezkagarriagoa dena, euskal kultura ahaztea. Nik behintzat oso argi daukat bertso munduan sartuta jarraituko dudala ahalik eta denbora gehiena.

Horregatik, oraingo umeek Cristiano Ronaldo edo Messi jarraitzen duten bitartean, nik Amets Arzallus edo Miren Amuriza ditut idolo moduan.

Maitane Muñoz Iturria
hezkitzailea eta mugimendu feministako kidea

Ikusi makusi, zer ikusi?

Ikusi makusi, zer ikusi? Asmakizunak eta sekretuak beti izan dira jolaserako aitzakia ona. Baina zer gertatzen da sekretuak eta asmakizunak haurrak erasotzeko aitzakia edota bidea bihurtzen direnean?

Bilgune Feministak lelo hau hartuta, azaroaren 25aren inguruko hausnarketa proposatu du. Leloak jendartean ezkutuan dagoen errealitate bat ongi definitzen du, haurren pairatzen duten indarkeria patriarkala, jokoz mozorrotuta errealitate zikin eta bortitz bat.

Patriarkatuak dituen hamaika aurpegi eta hamaika ahots maiz aipatu dira eta hau, zoritxarrez, beste bat besterik ez da. Haur asko gertatzen denaren kontzientzia izan barik, indarkeria patriarkalaren eguneroko biktimak dira. "Aitatxuk egiten badu ezin da zerbait txarra izan!" Eta erasotzaileak haurren bakuntasun horretaz aprobetxatzen dira zehazki.

Uste dugun baino haur gehiagok eraso, jipoi edo sexu erasoak jasotzen dituzte.

Bestalde, ezin ditugu ahaztu, haurrek euren amen kontrako indarkeriaren ondorio zuzenak ere pairatzen dituztela. Trukerako txanpona bezala erabiliak izaten dira, indarkeria dinamikaren parte bihurtuz eta batzuk umezurtz geratuz. Txikitatik identitatearen eraikuntzan jasotzen dugun prezioari aurre egiteko eta ageriko indarkeri bortitz honi aurre egiteko, hezkidetza eta autodefentsa feminista ezinbesteko tresnak izan behar dira gure ikastetxeetan.

Bukatzeko, etxeko trapu zikinak politikoak direnez isiltasun-hitzarmenekin hautsi behar dugu.

Jolas, sekretu eta asmakizunek sortzen duten konplizitatea, plazerra eta ametsak galdu ez daitezen ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE!

prest174web.indd 4 30/11/16 15:28

Gerardo Sanz Enguita

Jatorria: Zaragoza (Zaragoza)
Bizitokia: Deustu
Lanbidea: ikerlaria

"Aragoin bada gauza bat hemen ez dagoena, bakardadea"

Testua
Lur Mallea

Zer dela eta etorri zara Zaragozatik Deustura?
2011-12an Fisika karrera bukatu nuen eta urtebete lanean eman nuen Zaragozan. Lan gabe geratu nintzenean, krisi garai gogorrean, han ez nuen ezer ere. EHUn ikertzeko eta masterra egiteko urtebeteko kontratua aurkitu nuen eta ondoren doktoretza beka bat eskuratzeko aukera. Guztira, bost urte eman ditut hemen.

Zure doktorego-tesia defendatu behar duzu laster.
Abenduaren 2an egin behar dut defentsa. Kristal likidoak aztertu ditut. Telefono mugikorretako pantailak edota erlojuetako pantailak kristal likidoarekin eginda daude. Esperientzia ona izan den arren, Fisikarena ez dela nire mundua konturatu naiz. Bilboko bizimodura hobeto moldatu naiz unibertsitateko bizimodu akademikora baino.

Doktorego-tesiaren azken txanpan, zelan sentitzen zara?
Unerik txarrena da, azken bi hilabete hauetan gauza asko pilatzen ari zaizkit. Idatzizko lana entregatu ostean hobeto sentitzen zarela esan dit jendeak, baina niretzat ez da horrela izan. Tesian aldaketak egiteko, hau eta bestea egiteko esaten didate. Egun askotan goizeko seiretan esnatzen naiz eta gaueko zortziretan bueltatzen naiz etxera.

Non bizi zara? Zein auzo ezagutu duzu?
Lehenengoz Alde Zaharrean bizi izan nintzen eta harrezkero Santutxun, Arangoitin eta Deustun bizi izan naiz. Lehen urtean Txoridendako ortu taldekoak ezagutu nituen; oso gustura ibili nintzen eurekin. Jendea ezagutzeko aukera eman dit.

Zer gehiago ezagutu duzu?
Mendian ibili naiz, Bilbon zehar asko atera naiz, eta Bizkaia apurtxo bat ezagutu dut. Leku abegikorra da hau. Bilbo, hiri bezala, Zaragoza baino gehiago gustuko dut.

Zertan da hobea Bilbo Zaragozarekin alderatuz?
Hiri erosoagoa da Bilbo, adibidez mugitzerako orduan. Metroa dago, eta dena metatuta dago. Zaragoza zabalagoa da, eta distantziak handiagoak dira. Hiri abegikorragoa da Bilbo, nire ikuspuntutik, jarduera eta ekitaldi ugari daude jende asko biltzen dutenak. Zaragozan hori mugatuta dago gune jakin batzutara. Baina hiriko kanpoaldea nahiago dut Zaragozakoa. Aragoin bada gauza bat hemen ez dagoena, bakardadea. Hemen, azken herrian ere jende piloa bizi da. Bertako herri txiki bat Aragoiko hiri baten parekoa da.

Euskaldunok harreman berrietarako itxiak garela diote. Horrela al da?
Ez nuke esango itxiak zaretenik. Komunitate sentipen oso hertsia duzue eta ez oso mugikorra, baina ez da harreman pertsonaletan islatzen.

Zaragozakoak eta Aragoikoak zelakoak zarete?
Euskaldunek moduan itxi ospea dugu, batik bat landa eremukoek, baina itxitasun osasuntsua da. Lotsarekin eta deskonfidantzarekin zerikusi gehiago du. Baina jende jatorra gara gu ere.

Zerk harritu zaitu?
Igande baten paseatzerakon ikus dezakezun jendetzak itsasadarrean trainerak daudelako edo Arriagan kontzertua dagoelako. Hainbeste jardueren inguruan biltzen den jendetzak harritzen nau. Era askotako jendea da gainera, familiak umeekin eta abar. Hori Aragoin urtean behin edo bitan baino ez da gertatzen. Baina ez etengabe, hemen bezala.

Urtarrilean Zaragozara itzultzean, zer eramango duzu?
Master titulu bat, Doktoretza titulu bat, eta mantendu nahi ditudan harreman oso onak hainbat pertsonarekin.

Itzuliko zara Deustura?
Bai, maiztasunez etorri nahi dut. Agian, Deustuko jaietan.

prest174web.indd 5 30/11/16 15:26

JAI EREDUA AZTERGAI

Ikasturtearekin batera, Deustuko Zirikatzen! kolektiboak bere proiektu berria jarri du martxan, "jai ereduaren inguruko hausnarketa". Horretarako, lau eguneko jardunaldiak antolatu ditu drogak, musika, auzo/herrietako jaiak eta hiriburuetako jaiak mintzagai hartuta. Ekarpen ugari jaso ditu kolektiboak.

Testua
Lur Mallea
Argazkiak
Deustuko Jai Batzordea
Diego Grisaleña
Las Tea Party

Euskal Herriko hainbat txokotan "denbora luzez askoren ahotan egon den gaia" da jai ereduarena, eta eztabaida horretan euren "harri koskorra" erantsi nahi izan dute Zirikatzen! kolektiboko kideek. "Egungo jai ereduak balio duen", hainbat lekutan zabaldu den galdera da Zirikatzen! kolektiboko kide Iker Aroztegiren esanetan. Eredua "pentsatu eta birpentsatu beharra" jai batzordeetan, txosna bartzordeetan eta konpartsetan ez ezik talde polikoetan ere jorratu den gaia da. Ezker Abertzalearen baitan, esaterako, "zertarako nahi ditugu jaiak" galderaren inguruko hausnarketa egin dute.

Deustualdea ez da salbuespena. Jai ereduaren kezka bertan ere zabalduta dago. Aroztegiren arabera, "diruaren kontua dela-eta" piztu zen kezka. "Diru sarrerak etengabe beherantz hasi ziren Deustun ere eta, batez ere txosnen kokapenagatik eta hotzagatik, azken bi txosnetara inor ez zihoalako". Jai gunearen egiturak eta antolaketak desoreka sortzen zuen txosna muntatzen zuten kuadrilla eta konpartsen diru sarreretan, eta orduan hasi zuten hausnarketa.

Lau adar

Jaiena adar asko dituen gaia izaki, lau adar adostu eta adar bakoitzari heltzeko mahai inguru bana antolatu dute Zirikatzen! kolektiboko lagunek. Drogena izan zen lehen mahai ingurua eta "eskasena" parte-hartze aldetik, nahiz jedentsuena izan zen. "Agian ez genuelako gaia bideratzen eta denborak neurtzen asmatu", dio Aroztegik. Batzutan, jendaurre zabal batean baino "erosoago sentitzen gara talde txikietan iritzia ematen".

30 bat lagun bildu zituen saioan Ai Laket elkarteko kide bat "droga erabiltzaileak arriskua murrizteaz eta ondorioetaz jabe-

prest174web.indd 6 30/11/16 15:28

tzearen garrantziaz" mintzatu zen. Izan ere, Ai Laket elkartearen iritziz, drogak "gure artean daude" eta "ez ditugu ondo erabiltzen. Kristoren droga nahasketak egiten ditugu eta porroek eta alkoholaren kontsumo etengabeak unean bertan eta biharamunean zein ondorio eragiten diguten badakigun arren, ez dakigu 10 urtera zer eragin diezaguketen".

Aitor Aspuruk, berriz, drogak "ikuspegi politikotik" aztertu ditu. Aspuruk gehiago erreparatzen dio "nork saltzen dizkigun" eta "zein helbururekin" bezalako xehetasunei. Bere diskurtsoaren arabera, "drogek kontsumismora bideratzen gaituzte, parradandak berak bezala, eta langile klaseak buruan duena ahaztarazteko xedea dute".

Egoera soziopolitikoa aldatu den neurrian, jaietan eta parranda giroan kontsumitzen diren drogak ere aldatu diren susmoa dute Zirikatzen! taldeko kideek. "Garai konfliktiboetan kontsumitzen zen speedetik garai lasaiagoetan kontsumitzen den kokainara pasa garela". Baina, ahalegindu arren, ez zuten drogen kontsumoaren eztabaida jaietara bideratzea lortu. Oro har mundu mailako drogaren negozioa eta drogaren interesak izan zituzten batik bat hizketagai nagusi.

Irizpideak musikarako

Naroa Gaintza eta Ivan Barrio musikariak eta Saioa Cabañas Emarock proiektuko bultzatzailea izan ziren bigarren jardunaldiko gonbidatuak. 15 bat lagun elkartu ziren, eta parte-hartzea gehiago zabaldu zen, musika "beti hor dagoen elementua" delako, "jaietan dugun adierazpen kulturalik handiena eta uneorokoa" delako. Kontzertuetan, txosnetan, bazkarietan… ez du hutsik egiten, baina "ez zaio behar bezalako arreta eskaintzen". Hori izan zen ondorio nagusietako bat. "Ez dugula batere zaintzen, eta batez ere talde txikiak" ez direla zaintzen. Gaintza eta Barrioren iritziz, "asko" inbertitzen da talde handietan, "dirutza ordaintzen zaie jendea erakartzen dutelako eta horrek txosnetako kontsumoa sustatzen duelako". Talde txikiei berriz, "ez zaie arretarik eskaintzen eta doan jotzeko eskatzen zaie". Hor "desberdintasun handia" dago. Desoreka berdintze aldera, talde guztiek "zerbait" kobratzeko proposamena egin dute. "Jai herrikoiak badira gureak, herriko taldeek jaiak diren erakusleiho horretan parte hartu behar dute".

Musikarako "irizpide orokor batzuk" aldarrikatu dituzte. "Koherentzia gehiagorekin" jokatzeko, bai kontzertuak programatze-

"Talde txikiei ez zaie arretarik eskaintzen eta doan jotzeko eskatzen zaie"

prest174web.indd 7 30/11/16 15:27

rakoan bai txosnetan entzungo den abestien zerrendak osatzerakoan. Eta "konplexua" da koherentzia izatea estiloetan, diskurtsoetan edota hizkuntzetan. Baina tokian tokiko musikazale eta musika adituen laguntzarekin egin daitekeen lana da bertako taldeen presentzia, talde txikiena, euskararena edota mezu ez matxistak bermatu nahi badira, besteak beste. Horrela, dantzagarria den musika Enrique Iglesiasen azken abestira ez da zertan mugatu behar.

Saioa Cabañasek Emarocken esperientzia kontatu zuen. Emakume musikariei argazkiak egitetik, erakusketak egitera eta kontzertuak antolatzera zelan pasa den azaldu zuen. Jaietan, kontzertuetan, eszenatoki gainean "neskak falta dira" esaldia, neurri batean, aldatzea lortu dute Saioak eta Emarockeko lagunek. Egun, nerabeek "harriduraz" begiratzen diote oraindik emakume musikariei. Baina izan, badauzkate ereduak, eta "guk ere egin dezakegu" pentsaraztera bultzatzen ditu. Eta izan du, bai, ondoriorik, Emarock sortu zenetik, azken sei urteetan, "neska musikarien kopurua biderkatu egin baita eszenatokietan".

Auzo, herri eta hirietako jaiak

Jabi Ortega (Deustuko jai batzordea), Pili Alvarez (Deustuko eta Igorreko jai batzordea),) eta Nerea Zuluaga (Zorrotzako jai batzordea eta Auzotarrok koordinadora) izan ziren hirugarren saiora bertaratu zirenak, beste hainbat lagunekin batera, hausnarketan parte hartzera. Abiapuntu gisa, "heterogeneotasuna" aipatu zuten, "errealitate oso desberdinak" baitituzte Deustun, Iralan edota Errekaldeko jaietan. Horregatik, "herrikoi" kontzeptuari buruz luze mintzatu ziren. "'Herrikoi' eta 'popular' ideiak sarri nahasten direlako eta "kontraesanak" egon badaudelako. Jai herrikoiak "herriak herriarentzat egiten diren jaiak" badira, "zergatik mugatzen da 'herria' adin tarte batera? 16-40 urteko jendearengana, hain zuzen ere, eta gaueko egitaraura? Edota zergatik antolatzen dira sarritan jarduerak auzotarrentzat baino gehiago auzotik kanpoko jendea erakartzeko?". Hauek dira egin ziren galderetako batzuk.

Jai eredu zaharrarekin apurtzea ez da erraza. Denbora behar da gelditzeko, hausnarketa egiteko eta hausnartutako erabakiak ezartzeko, "bi edo hiru kurtsoko plangintza", are denbora gehiago jai eredu herrikoia lan boluntarioan oinarritzen denean. "Ez dugu ahaztu behar boluntario eran antolatzen ditugula jaiak".

Eredua apurtu ez, baina aldatu egin da denborarekin. "Errealitateak eta, kasu askotan, diruak" bultzatu du jai eredua aldaketara. Eguneko jarduerak sustatzera, beste adin tarte batzuei erreparatzera, eta bitartekoak jartzera. Hortaz moldatzeko gaitasuna erakutsi dute jai herrikoiek. "Ez da eredu zurruna, mugitzen ez dena", dio Aroztegik.

Dirua, finantzaketa eta autogestioa bezalako hitzak sarri entzun ziren mahai inguruan. Jaietan urteetan eragileek eskuratu duten irabazia oso garrantzitsua izan da eragileen urte osoko finantzaketan. Azkenaldian, ordea, gauzak asko aldatu dira eta irabaziak asko murriztu dira. Zirikatzen! kolektiboaren aburuz, "talde, kuadrilla edota konpartsatik haratago, jaietan pentsatu behar da: zer egingo dugun eta zer aldatu nahi dugun". Ezin dira jaiak "erabat baldintzatu" eragileengatik. Hori gertatu baino lehen "dena birpentsatu" behar da. Esaterako, "eragileek diru iturri bezala beste gauza batzuk egin ditzakete. Baina ohituta gaude eredu horretara, gainera, nahiko erosoa da, eta egiten badakigu: txosna jarri, jendea lotu eta aurrera".

Jai eredua "ezbaian edo kolokan" dagoela uste dute, baina ez Deustun bakarrik, "leku guztietan ikusten ditugu mugak". Adibidez, militantziaren mugak. "Txandak betzea geroz eta zailagoa da", txosna muntatzea eta desmuntatzea bezalaxe. "Militantzia maila beste bat zen garaiko ereduarekin jarraitzen dugu militantzia maila bera ez denean".

prest174web.indd 8 30/11/16 15:27

Udalarekin harremana

Bilbokoa moduko Udalari eskatu behar zaion "gutxiengoa" jaien antolaketan "trabarik ez jartzea da", jai batzordeen lana "ahalbidetzea", alegia. Esaterako, beharrezko azpiegiturak maileguan utziz. Bilbon, asko eta "zentzugabeak" baitira Udalak jai batzordeei eskatzen dizkieten baldintzak; asko azpiegiturekin lotutakoak. Horregatik oso garrantzitsutzat jotzen dute Auzotarrok koordinadorak egiten duen lana Udalari "presio egiten". Besteak beste, "gurea ere baden dirua auzoetako jaietan inbertitu dezan, eta ez soilik BBK Live bezalako jaialdietan".

Hortik aurrera, heterogeneitasunaren arabera, "eta herri mugimendua indartsua bada, Udala zenbat eta kanporago hobe; hori litzateke ideala", irizten dio Zirikatzen! kolektiboak. "Agian, ez da inon horrelako kasurik gertatuko, baina egin dezagun ahalegina ideal horretara hurbiltzeko".

Hiriak inertziak astintzen

"Heterogeneotasun handiena" Bilbo, Donostia eta Iruñeko jaietan antzeman dute. Bilbon jaiek "esperientzia eta oinarri sendoa" duten bitartean, Piratak eta Gora Iruñea "oraindik kokatzen daude, tokia egiten, Udalarekin izan nahi duten orekaren bila", eta horregatik dira "oso interesgarriak".

Arreta deitu du deustuarren artean Piraten jarrerak. Bertako produktuen alde Piratek egin duten apustuak. Esaterako, Boga artisau garagardoa Aste Nagusian garagardo industrialen prezio berean eskainiz. "Dirua galduko zutela jakinda, apustuan sinetsi dute, bertako produktuen aldeko ideia bultzatzeko. Hor ez dute eragilerik finantzatu behar, esperientzia horri jarraipena ematearekin eta sakontzearekin nahikoa dute. Jai herrikoietan horrelako saiakerak egin behar dira".

"Aurrerapausoak ematen jarraitzea" da koska. Edalontzi berrerabiliekin egiten ari diren bezala. Plastikozko edalontziekin sortzen zen zaborra murriztu ostean, erronka berria barran edo barrapean geratzen diren edalontziak, bildu, garbitu eta berriro eskuragai jartzeko sistema eraginkorra asmatzea da. Horretan ari dira bai Iruñean bai Bilbon. Edalontzi berrabilien "zikloa itxi nahian". Horrelako adibideak dira "jarraitu beharreko bidearen erakusle".

"Udala zenbat eta kanporago hobe; hori litzateke ideala"

Bide berri horietan aurrera egiteko funtsezkoak dira "gogoa eta indarra", eta orain arteko "inertziak apurtzeko gaitasuna izatea". Inertzia gutxiago dutenez, "gazteei utzi behar zaie bidea egiten" Zirikatzen! Kolektiboko kideek diotenez. "Egungo egoera berria baita zentzu guztietan, militantzia mailan, egoera sozioekonomikoan… diru gutxiago ateratzen da diru gutxiagoa daukagulako. Duela 10 urteko logikan pentsatzen jarraitzen dugu, eta gazteek inertzia horiek astin ditzakete".

Deustuko jai batzordean gazteak dira nagusi. "Pozgarria da 30 urtetik beherakoak eta ia denak neskak direla ikustea". Horiei utzi behar zaie bidea egiten.

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

prest174web.indd 9 30/11/16 15:27

ESKOLAKO TXIKIAK ETA NAGUSIAK ELKARLANEAN: IKASTEKO TRESNA MOTIBAGARRIA

Gure eskolan, Deustu eskolan, ikasle nagusiek txikiekin batera egiten dituzten ekintza batzuetan batzuk besteengandik ikasten dute.

Testua eta argazkiak
Deustu eskola

Haien artean sortzen den harremana hainbat helburu lortzeko oso motibagarria da: hizkuntza indartzeko, elkarrenganako errespetua lantzeko, elkarlana bultzatzeko, arduratsua izaten ikasteko, irakurtzeko zaletasuna sortzeko, auto-estimua indartzeko Gabonetako oporrak pasatu ostean, 'Irakurketa lagundua' ekintza abian ipintzen dugu. Seigarren mailetako ikasleek astean behin bost urteko geletara jaisten dira bikoteka irakurtzen. Ekintza hau, gozatzeko momentua bihurtzen da; giro lasaian nagusiek txikientzat aproposak diren liburuek irakurtzen dizkiete. Oso gustura egiten duten jarduera bat da eta honek irakurtzeko zaletasuna bultzatzen du ikasle guztiengan, bai txiki baita nagusi ere bai.



Hirugarren hiruhilabetekoan 5.mailakoek Gorputz Hezkuntza irakaslearekin 4 eta 5 urtekoekin 'Txiki txoko' antolatzen dugu. Nagusiek txikien jolasak prestatzeaz, azaltzeaz eta dinamizatzeaz arduratzen dira. Nagusientzat ardura bat hartzea guztiz aberatsa da eta txikiei, besteaz beste, hizkuntza garatzeko, jolasak ikasteko, elkarlanean aritzeko eta eskola komunitatearen partaide izateko egokia da.

Asteazkenero, jolasaldian, eskola osoko ikasleek, 'patioko jolas zuzenduak' egiten ditugu. Jolas hauek, irakasleen laguntzarekin, nagusiek dinamizatzen dituzte; materialak atera eta gordetzen dituzte, jolas arauak azaltzen dizkiete, dinamizatzen dituzte joko hauek eta honez gain sortu ahal diren ez ulertzetan konpontzeko bideak ipintzen dituzte.

Azken ikasturte hauetan egindako esperientzia hauek oso emankorrak direla uste dugu eta ikasle guztien artean lortzen den hurbileko harreman berezi horrek ikasketa prozesuan eragina eduki duela uste dugu, eta bide horretan lanean jarraitzeko asmoekin gogor, sendo eta ilusio handiz aurrera goaz.

prest174web.indd 10 30/11/16 15:27

ARTEBI
MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN BILBOKO ESKOLA
MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA
Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

GERARDO BILBAO, FUTBOLARI, TXAPELDUN ETA ERBESTERATU POLITIKOA (ETA II)

Gerardo Bilbao (1907-1982) deustuarraren kirol ibilbidea jorratzen ari gara. Aurreko atalean gerra aurreko jarduna laburbildu genuen, Arenas eta, batez ere, Athleticen egindako balentriak. 1936ko kolpe militarrak zeharo aldatu zion bizitza.

Testua: Hektor Ortega

1936ko uztailaren 18ko matxinadaren ostean normaltasuna hautsi zen eta, besteak beste, kirol jarduna nabarmen murriztu zen, logikoa denez. Futbolari dagokionez, txapelketa nagusiak bertan behera gelditu ziren. Hala ere, partida batzuk jokatu ziren, batez be dirua batzeko asmoz. Horietako batzuetan aritu zen Gerardo Bilbao. Esate baterako, Otxandioko bonbardaketaren biktimei laguntzeko 1936ko abuztuaren 23an Durangon jokatu zen norgehiagokan.

Une hartan gauzak ez zeuden argi eta Athleticek aurre-denboraldiko partida bi jokatu zituen Racingen aurka, haiek ere dirua batzeko asmoz. San Mameseko partiduan (irailak 6) bigarren zatian atera zen Gerardo. Partida haietako kroniketan nabarmena da futbol denboraldia jokatzeko itxaropena ez zegoela galduta. Handik gutxira, ostera, esperantza oro zapuztu zen: irailaren 13an Donostia jausi zen eta hilaren 25ean hegazkin faxistek Bilbo bonbardatu zuten. Argi geratu zen hura gerra zela eta ez zegoela kirol jarduerarik normaltasunez egiterik.

Hala ere, partida gehiago jokatu, jokatu ziren. Esate baterako, azaroaren 29an euskal selekzioak Kantabriakoaren aurka jokatu zuen Santanderren. Kroniken arabera, norgehiagoka aspergarria suertatu zen, eguraldi zitalaren laguntzaz. Hala ere, guretzat aipagarria da, Gerardok debutatu zuelako. Hona hemen egun hartako euskal hamaikakoa: Blasco, Areso, Aedo, Zilaurren, Markuleta, Ipiña, Gerardo, Iraragorri, Unamuno, Olivares eta Gorostiza.

Gabonetan beste partidu bat jokatu zuen Athleticek Racingen kontra, baina orduko hartan Gerardo ez zen aritu.

Euzkadi taldean bai, baina ez

1937ko apirileko lehenengo igandean euskal talde bik indarrak neurtu zituzten San Mamesen. Partidu hartako protagonista gehienak euskal borroka munduan zehar zabaltzeko asmoz eratu zen Euzkadi selekziorako hautatu zituzten. Apirilaren 18ko *Euzkadi* egunkariak deialdia argitaratu zuen: Blasco eta Eguzkitza atezainak, Ciriaco, Ahedo, Areso eta Pablito atzelariak, Zilaurren, Kuki Bienzobas, Mugertza, Soladrero, Zubieta eta Roberto erdilariak eta Gerardo Bilbao, Iraragorri, Langara, Larrinaga, Gorostiza, Sanchez Arana eta Unamuno aurrelariak. Albistearen alboan, kasualitatea, deustuar gudari baten eskela ere ageri zen: Luis Bertol Garrastazu, borrokan hilda. Haren anaia Robertok 1940ko hamarkadan jokatu zuen Athleticen.

Euzkadi taldeak Frantzian jokatu zituen lehenengo partiduak apirilaren amaieran. Selekziorako hautatu zuten arren, Gerardok ez zuen bertan ibilbiderik egiterik izan. Berak honela kontatu zuen gertatutakoa: “Santanderrera joan nintzen, Euzko Jaurlaritzaren aginduetara nengoelako; han nengoela esan zidaten euskal taldearekin joateko; baimena eman zidaten eta hegazkina hartu behar genuen egunean faxistek hegazkina eraitsi

Athleticen hamaikako honetan hamabi jokalari ageri dira. Crónicak kaleratu zuen 1936ko martxoan: Blasco (1), Zabala (2) Oceja (3), Zubieta (4), Mugertza (5), Roberto (6), Gorostiza (7), Iraragorri (8), Bata (9), Garate (10), Elices (11) eta Gerardo (12).

zuten; korreo frantsesa zen hura. Hurrengo korreoaren zain egon nintzen baina Laredotik atera zenean motorrean matxura eduki eta itsasora jausi zen". Berarekin Kuki Bienzobas eta Victorio Unamuno zeuden, zain. Hirurak lurrean gelditu ziren.

Gerardo Bilbao zerbitzura itzuli zen. Haren izen-deitura berdineko pertsona batek Itxas-Guda Burutzan ziharduen sasoi hartan, bulegari lanetan. Bera ote? Errepublikazaleak Santanderretik erretiratu zirenean Gijonera jo zuen eta handik, ontziz, azken unean, Frantziara. Urriaren 20aren inguruan izan zen. Ondoren Kataluniara igaro zen. Han futbolera itzuli zen, bizimodua ateratzeko itxaropenaz. 1937ko azaroaren 28an Bartzelonarekin egin zuen debuta, baita gol bat lortu ere. Lliga Catalana jokatu zuen, 29 partida guztira. Kataluniako selekzioarekin ere partidu batean aritu zen, karabineroen Leones Rojos taldearen aurka. Berau dugu euskal selekzioarekin eta Kataluniarekin jokatu duen futbolari bakarra.

Venezuelara

Azkenean, faxismoaren garaipenaren ondorioz, Kataluniatik ere alde egin behar izan zuen. Ameriketara jo zuen. Lehenengo Dominikar Errepublikara eta handik, 1939ko abenduan, Curazaotik igarota, Venezuelara iritsi zen, euskal erbesteratu talde batekin. Han jarri zen bizitzen. 1940 eta 1950 bitartean bertako ligan jokatu zuen, Deportivo Venezuela, Loyola eta Deportivo Vasco taldeetan. Ikusmina piztu zuen, izen handiko jokalaria batu zelako futbola amateurra zen Venezuelako ligara.

Cumanan gelditu zen bizitzen, familiarekin. Caracasen hil zen 1982an. 1937ko apirilean Euskal Herritik alde egin zuen 30 urteko gizonak 45 urte egin zituen erbesteraturik.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

AUTODEFENTSA FEMINISTA, TRESNA ETA GILTZA

Testua:
Pare gazte talde feminista

Argazkia:
Ecuador Etxea

Azken asteetan Deustun izandako erasoak, hamaika eraso sotilagok zabaldutako bidearen muturreko espresioa besterik ez dira. Emakumeon zapalkuntzaren gainean eraikitako sistema baten ondorio dira, lan merkatuan ematen diren bereizkeriak, harreman ereduak, kaletik lasai ibili ahal ez izatea, espazio desberdinak guretzako debekatuta egotea... diren bezala. Eraso hauetako baten kasuan bereziki nabaria zen gurutzatutako zapalkuntza hauetan oinarritutako sistema basapiztia honen hatzaparra, erasotuetako bat etxegabea baitzen. Emakumea eta txiroa. Sistemak inporta ez duen bizitza bezala seinalatua, instituzioen babesgabe, erasotua izateko bi bider seinalatua.

Feministoi beti haserre egotea leporatzen digute, biolentak garela esaten zuen Paul Abasolok *El Correo* eta *Deia* egunkariek eskaintzen zioten bozgoragailuetan... baina zelan ez gara haserre egongo? Astero dugu eraso sexista gehiagoren berri, egunero sentitzen gara modu desberdinetan erasotuak. Etxera bidean urduri goazela lizunkeriren bat esaten digun tipoa, bilera batean ahotsa altxatuz isilarazten gaituen matxito sasi-feminista, lagunekin dantzan gaudela ipurdia ukituz graziosoarena egin nahi duen eta brometan dagoela uste duen petardoa... zenbat eraso txikik ematen diote bide bortxaketa bati? Noiz bilakatzen da eraso bat jendartearentzako salagarri? Zenbat amorru, sumin eta umiliazio pairatu behar ditugu guk “larriegiak” ez direlako? Bai, beti gaude haserre, hainbeste erasoz inguratuta, berezkoa dugun umorea agortu egiten zaigulako, amorrua delako geratzen zaiguna, eta egoera bortiz horren aurrean, autodefentsa geratzen zaigun bide bakarra delako.

Haserre gaude, eraso guzti hauek saihestu zitezkeelako. Balore feministetan heziko bagintuzte, erasoen inguruko benetako lanketa bat egingo balitz, ez liratekeelako bortxaketen aurrekoak diren hamaika eraso onartuko. Eta ez ziren gehiagora joango. Baina badoaz, jendarte honetan erasotzaileak hezi eta babestu egiten direlako. Eta feministok, egunero erasotuak garen neskok, justifikatu behar dugulako gure burua.

Hika-mika handia piztu zuten iaz beltzez jantzita eta aurpegia estalita, jarrera bortitzean Euskal Herri osoan ehundaka neskok burututako manifestazioek. Eraso zer den eta zer ez den eztabaidagai bihurtzen da jai giroan norbaiten baboseoaren aurrean planto egin eta erantzuten dugunean. “Histerika” eta “paranoika” deitzen gaituzte jarrera desberdinen atzean genero rolak daudela diogunean. Behin eta berriro zalantzan jarriak gara. Gu, gure argudioak eta gure erantzunak jartzen dira zalantzan. Gizonen monopolioa izan den biolentzia gure egiten badugu, haserre egoteari utzi eta pedagogia egiteko eskatzen zaigu. Pedadogia egiten badugu, beste albo batera begiratu, eta entzungor egiten digute. Indarkeria sexisten epaiketa sozial honetan, gu geu, erasotuak, gara eraso bat eman dela frogatu behar dugunak. Ez erasotzailea. Eman dela, gertatu dela... esamoldeak erabiltzen ditugu oharkabean! Erasoak gertatu egingo balira bezala, NORBAITEK-NORBAIT erasotuko ez balu bezala.

Jendarteko zapalkuntza desberdinak elkar-harremanetan dauden heinean, are eta zapalduago, are eta aukera gehiago ditugu erasotuak izateko. Neska eta gaztea, emakumea eta txiroa... etxera bidean sentitzen bagara arriskuan, zeresanik ez iristeko etxerik ez dagoenean!

Eraso hauen aurrean, Pare! Gazte Talde Feministak, beste herri eta auzo askotan

prest174web.indd 14 30/11/16 15:27

egin duten bezala, kalera atera gara, baina sistema kapitalista eta heteropatriarkala eta bere ondorioak salatzera, ez bortxaketak bakarrik: egunero pairatzen dugun biolentzia da salatu nahi duguna. Azken aste hauetan, etengabekoa izan da erasoei eman beharreko erantzuna. Bati erantzuna eman orduko, hurrengoa mahaigainean. Erantzun eta erantzun. Kartelak egin eta jartzeko azken orduko kedadak, presaka deitutako kontzentrazioak, "zer dio protokoloak kasu honen inguruan?", ingurukoen izugarrizko erantzuna... eta berriro ere hastera. Feminismoari lotutako hamaika kontu egin nahiko genituzke, baina hainbeste erasorekin, erantzun gurpil batean murgilduta bizi gara. Eta suminez bizi dugu.

Hala ere, boteretu egin gaituzten momentuak ere bizi izan ditugu. Erribera sarreran egindako kontzentrazio deialdiak oihartzun handia hartu zuen, auzokideek zein Bilboko mugimendu feministak bere egin, eta asko zabaldu zutelako, baina baita komunikabideek hedapen handia eman ziotelako ere. Bilboko Udalak ere, mobilizazio propio bat deitu beharrean, mugimendu feministako kideok deitutako horretara joateko hautua egin zuen. Erantzun giro horrekin oso ilusionatuak geunden, beraz. Indartuta. Mugimendu feminista jendartean irabazten ari den erreferentzialtasun eta aitortza horrekin emozionatuak: ez gara gu erasoekin nazkatutako bakarrak, ez gara gu bat bera gehiago ere onartzeko prest ez gaudenak! Asko gara sistemaren eraldaketa beharra ikusten dugunak!

Zoritxarrez, Deustu eta Erriberako auzokideen babesarekin indartu bezainbeste sumindu ginen deialdiak hedapen handiko medio askotan izandako trataeraren ondorioz. Ez bakarrik Pare edo mugimendu feminista aipatu ere egin ez zituztelako, ez. Nahiz eta mugimendu feministari ezikusia egite hori, aitortza falta hori, baden bere horretan larria. Deialdian egindako irakurketa politikoaren esaldi bakar bat ere ez zuten jaso, bertan hainbeste jende bildutako mezuak garrantziarik ez balu bezala. Pankartaren mezua bai, hori aipatzen zuten, berria argazki bati begiratuta erredaktatu izan balute bezala. Zeresanik ez gertaeraren inguruko irakurketari buruz: "bortxaketak" eta "egoera bereziki xahurgarria". Sistema kapitalista heteropatriarkarrari inongo aipamenik ez, bestelako erasoei ere ez... Beste behin ere, bortxatutako emakumeak edo egunerokotasunean eredu feministaren aldeko eraikuntza lan isil eta nekagarrian murgilduta gbiltzan feministok ez ginen protagonista... baina instituzioak bai. Udalak mugimendu feministaren deialdiekin bat egitea oso positiboa izan bazen ere, deklarazioetan protagonismoa eurena egitea, ez. Seguruenik medio horiek ere instituzioen deklarazioak nahiko zituzten, Anjel Toña eta zinegotzienak, horiek baitira eurentzako notizia egiten dutenak. Trataera lotsagarria. Medio batzuengandik espero genezakeen, mugimendu feministaren kontrako etengabeko kriminalizazio eta desprestigiazio kanpainan murgilduta daude eta, baina beste batzuekin, dezepzionatuta gaude. Gutxi batzuekin, oso eskertuta, nola ez.

Mobilizazio iraunkorreko hilabete honetan, hala ere, atera ditugu ikaspen batzuk. Alde batetik, eraso orori erantzuten eta ikusgarriak ez diren erasoak mahaigaineratzen jarraitu behar dugula, guk egiten ez badugu, medio zein instituzioek estali egingo dituztelako, sistema bere horretan mantenduz. Muturreko erasoak salatuz, baina erroari heldu gabe. Bestetik, borroka honetan ez gaudela gu bakarrik: asko direla, zaretela,garela, feministokin batera kalera ateratzeko prest gaudenak. Ez soilik erasoak salatzeko, eredu sozial eta ekonomikoa aldatzeko baizik, hori delako emakumeon kontrako zapalkuntza guztiak gainditzeko bide bakarra. Eta azkenik, emakumeok izan behar dugula eraldaketa eta erantzun horren motor eta protagonista, eta autodefentsa feminista dela horretarako tresna eta giltza!

Horregatik, Pare gazte talde feministak, Deustuko herritarrekin elkarlanean, erasoak salatzen jarraituko dugu. Pedadogia politikoa egiten batzuetan, aurpegia estali eta jarrera bortitzean bestetan! Sistemarekin haserre, baina lanerako gu garen bezain umoretsu!

prest174web.indd 15 30/11/16 15:27

berbetan

OLATZ ARTEAGA CABEZArekin

Ikerketa Biomedikoan doktorea, ikerlaria eta irakaslea

Testua: Nuria Arroyo
Argazkiak: Iñigo Azkona

"Zientzien munduan kontratu

Ume jaioberriei heriotza eragiten dieten gaixotasunak ikertu ditu. Irailean Mapfre-Reina Sofia Fundazioaren beka, urtean pertsona bakarrari ematen zaiona, eman zioten Dublinen alzheimerra ikertzeko. Orain beka hori baztertu du Alfonso Martin Escudero Fundazioarena eskaini diotelako San Frantziskon bere tesiaren ikerlanarekin jarraitzeko.

prest174web.indd 16 30/11/16 15:27

ia guztiak beken bitartez egiten dira”

Zeintzuk dira zure ikerlanaren nondik norakoak?

Nire tesia jaioberrietan hipoxiskemia aztertzen oinarritu da. Hipoxiskemia sortzen da burmuinean oxigeno eta glukosaren falta duzunean. Hau da, odoleko oxigenoaren kontzentrazioa murrizten denean edo odolaren fluxua eten egiten denean edo murrizten denean eta ez zaizkizunean burmuinera beharrezko elikagaiak –oxigenoa eta glukosa– heltzen. Hori da mundu mailan umeen heriotza eragiten duen lehenengo kausa nagusienetariko bat.

Hipoxiskemia ekiditeko edo murrizteko bideak bilatzen saiatu naiz, antioxidatzaileetan oinarrituta. Hauen eragina aztertu dut jaioberrien hipoxiskemian, arratoietan.

Zerk erakarri zintuen gai honetan sakontzera?

Arlo klinikoarekin oso lotuta zegoela. Animalietan aztertzen duzu baina, azken finean, emaitzak eragin zuzena izan dezake gizakietan. Eta gaixotasun hori apaltzeko bidea bilatu nahi izan dut.

Baina, jendeak pentsatzen du guk erabakitzen ditugula gaiak. Askotan ez da posible. Master batean sartzen zarenean ematen dizuten taldean sartzen zara, edo oso aukera gutxi ematen dizkizute. Eta batzuetan esaten dizute ‘egongo zara irakasle honekin eta egingo duzu honetan lan’. Oso zaila da norberak nahi duen horretan lan egitea.

Aukera izango bazenu zein beste gairi buruz gustatuko litzaizuke ikertzea?

Gaitz neurologikoak gustuko ditut. Agian zailenak dira ikertzeko edo ulertzeko, baina hori gustatzen zait. Baita minbizia ere. Azken finean, giza gaixotasunekin zerikusia dutenak.

Zeintzuk izan dira ikerketan topatutako zailtasunik nabarmenenak?

Hasieran apurtxo bat kokatzea izan da zailtasunik handiena. Eta nik argi neukan tesia ez nuela egingo kobratu barik, ez nintzen egongo lau urtez lanean dohainik. Behin diru sarrera hori ziurtatuta, ez nuen topatu zailtasun ekonomikorik. Nire taldean gutxi ginenez bageneukan nahikoa ikerketa aurrera eramateko, erreaktiboak erosteko, kongresuetara joateko, artikuluak publikatzeko, etab. Baina ez da berdin gertatzen laborategi guztietan. Orain, krisia dela eta, talde askok ez daukate ezta guanteak erosteko ere.

Oso garrantzitsua al da beken kontua?

Kontua da, tesia bukatzen duzunean, EHUk, baldintza batzuk betez gero, ematen dizula bederatzi hilabeteko kontratua, doktorego osteko bekak eskatzen dituzun bitartean; zientzien munduan dena edo ia dena doalako beken bitartez. Oso zai-

“Oso zaila da norberak nahi duen horretan ikertzea”

prest174web.indd 17 30/11/16 15:27

▷▷ SAKONEAN

“Profesionalki giroz aldatzea ondo dator”

Zer da beka hau lortzetik gehien emozionatzen zaituena?

Hasteko egonkortasun psikologikoa. Jakitea bi urtez egongo naizela lasai, lanean, gustuko dudana egiten. San Frantziskon unibertsitateak ospitale batean umeekin egiten du lan. Ni laborategian egongo naiz baina, jakin-mina daukat haiek klinikan zelan lan egiten duten ikusteko, eta uste dut aukera izango dudala. Profesionalki ere uste dut ondo datorrela giroz aldatzea. Han laborategiak erraldoiak dira, pilo bat jende, errekurtso gehiago. Gainera, lekua ezagutzen dut eta badakit jendea jatorra dela. Ziurtasun horrekin noa.

Nortzuk izan dira zure erreferenterik nagusienak egindako ikerlanean?

Nire erreferenterik handiena da nire nagusia izango dena San Frantziskon, Donna Ferriero. Ikerketa pilo bat ditu honen inguruan, egiten duelako zientzia esperimentala animalietan eta zeluletan ere bai. Klinikan ere proba klinikoak egiten ditu.

Estatu Batuetan, San Frantziskon, bi urtez egongo zara. Ingelesez ondo moldatzen zara?

Ez pentsa. Defendatzen naiz, eta ondo idazten dut, baina hitz jariotasuna falta dut. Bi urte hauetan espero dut eroso hitz egiten ikastea.

la da kontratu bat izatea zientzia arloan. Nik bederatzi hilabete hauek nituen, baina nahi ez nuena zen hilabete horiek amaitu eta ezer gabe geratu. Orduan hasi nintzen beste beka batzuk eskatzen.

Mapfre-Reina Sofia beka baztertu duzu Alfonso Martin Escudero Fundazioarena hartzeko.

Bai. Mapfreren beka diru aldetik oso ondo zegoen, baldintzak onak ziren eta gaia –alzheimerra– ere oso interesgarria zen. Dublinera joateko eta giza laginekin lan egiteko aukera nuen, eta benetan motibatuta nengoen. Baina urte baterako zen. Eta besteak, beno, diru aldetik gutxiago da, eta ez dauka horrenbesteko ospea, baina bi urteko iraupena dauka. Kristoren pena ematen dit Reina Sofiarena baztertzea, baina honek bi urtez lanean egotea ziurtatzen dit eta, gainera, nire tesiaren gaiarekin jarraitzeko aukera daukat Kaliforniako Unibertsitatean, San Frantziskon.

Eta bekarik ez bazenu?

Ba, baneuzkan bederatzi hilabete hauek

prest174web.indd 18 30/11/16 15:27

kobratzeko eta aurten ez banuen bekarik lortzen baneuzkan beste sei hilabete langabezia kobratzeko, eta hurrengo urtean berriro eskatuko nituen bekak. Bi urtez eskatuko nituzke eta ez balidate emango utziko nioke saiatzeari eta irakaskuntzan sartuko nintzateke.

Beka bukatzen zaizunerako zer edo zer daukazu pentsatuta?

Nire asmoa da bi urte hauen ostean hona bueltatzea eta hemengo bekak eskuratzen saiatzea, EHUkoa, hemen ikerketarekin jarraitzeko.

Zer lortu nahi zenuke zientzialari gisa?

Gustatuko litzaidake mina, odol kaltea pairatzen duen antioxidatzaile bat edo farmakoren bat topatzea. Hori izango litzateke nire ametsa. Zorionez, ume gehienek, gaixotasuna eduki eta pairatu dutenek ez dute etorkizunean arazo oso larririk izan. Baina izan dezakete garun paralisia, epilepsia, atzerapen mentala, etab.

Historian zehar emakumearen papera zientzian oso eskasa izan da, edo askotan ezezaguna. Zelan ikusten duzu gaur egungo egoera?

Gero eta aurrerakuntza gehiago egiten ari gara eta zientzian gero eta emakume ospetsu eta errespetatu gehiago daude. Baina oso adierazgarria da zelan, adibidez, Biologiako karreran ikasleen hiru laurden gutxienez emakumezkoak garela, eta tesia egin bitartean ere gehienak neskak garela, nire arloan behintzat, Biomedikuntzan; baina, unibertsitatean ikusten duzu nola piramidea gora joan ahala, azkenean katedratiko gehienak eta lanpostu garrantzitsuenak dituztenak gizonezkoak direla.

Zergatik gertatzen da hori?

Zientzia oso lehiakorra da eta oso garrantzitsua da ez gelditzea, beti urrunago heldu nahi izatea. Emakumeak haurdun geratzen direnean ezin dute denbora guztia zientziari ematen jarraitu eta atzeratzen dira. Zientziaz bizi nahi izatea eta ume bat edukitzea ez dira bateragarriak.

Aipatzekoa da emakume atzerritarrek currikulumean zerrendatzen dutenean urtez urte zertan egin duten lan, zelan zehazten duten zein urtetan eduki duten umea, ikus dezaten zergatik egon diren lan egin gabe denbora tarte horretan.

Zientziarekin loturiko ikasketek ikasleen uzte-tasarik altuenetarikoa dute. Zer esango zenieke ikasleei eta ikerlari gazteei aurrera jarraitzera animatzeko?

Lehenik eta behin, ez bazaizu gustatzen ezin zara zientzietan sartu, esfortzu handia eskatzen duelako. Karreratik ohitzen gara etxetik kanpo egunean ordu asko egotera eta zientziari denbora ematera, klaseak, praktikak... Gustatzen bazaizu denbora errazago pasatzen da. Gero zientziak daukan gauza positiboa da zure emaitzak ikusten dituzula, eta horrekin norbere burua motibatzen duzu. Azkenean oso polita da, ikusten duzu nola egindako lanak zerbaitetarako balio izan duen.

“Ikasle gehienak emakumezkoak gara, baina unibertsitatean gizonezkoek dituzte lanpostu garrantzitsuenak”



BERBAIZU

Euskara eta feminismoa, bidaide

Abenduaren 15ean Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek *Euskara eta feminismoa bidaide* berbaldia eskainiko dute Mullerenean 19:00etan, Parek eta Berbaizuk antolatua. Berbaldiak Arrasaten orain dela bi urte hainbat mugimendu euskaltzalek eta feministek antolatutako *Izan zaitezke feminista euskaltzale izan gabe?* mahaia-inguruan du jatorria eta berbaldiak izan zuen harrera abegikorra ikusita, Lorea Agirre antropologoak eta Idurre Eskisabel EHUko irakasleak *Euskara eta feminismoa bidaide* berbaldia ondu dute, bi mugimendu hauen arteko erlazioa berbabide duena. Asmo horri jarraikiz, Deustualdeko euskara elkarteak eta elkarte feministak antolatuko dute berbaldi hau Mullerenean, Berbaizuren 25. urteurrenaren ospakizunen harira.

BERBAIZU

Musika asteburua

Abenduaren lehen asteburua musikaz beteko du Berbaizuk. Abenduaren 2an, ostirala, Physis VS Pelax kontzertua egongo da Mullerenean 20:00etan. Physis Versus Nomosek *Saudade é fatal* 2 lan berria aurkeztuko du Deustuan, Pelaxekin batera, eta Donostiako bi bakarlariek formatu berezian eskainiko dute kontzertua, biek aldi berean joko dutelako bata eta bestearen kantak tartekatuz. Abenduaren 3an, larunbata, *Iparralde gaualdia* antolatuko dugu ZAWPen Iparralde Zikloa bukatzeko, eta Paco kantautore baxe-nafarrak eta Begiz Begi taldea lapurtarrak euren lan berriak ekarriko dizkigute. Haiekin batera, Ipar Euskal Herriko garagardo artisaua ekarriko dugu, Hazparneko Etxeko Bob's Beer, esaterako, Iparraldeko doinuak eta zaporeak dasta ditzagun. Sarrera 5€tan da. Kontzertuak 21:00etan hasiko dira eta ateak 19:30ean zabalduko dira.

ELKARTASUNA

Errefuxiatuen eskubideen alde ekiteko taldea

Arangoiti, Deustu, Elorrieta, Ibarrekolanda eta San Inazioko hainbat auzokidek lantaldea sortu dute, Ongi Etorri Errefuxiatuak 5 Auzo izenekoa, inguru hurbilean eragiteko asmoz pertsona errefuxiatu eta migranteen eskubideen defentsan. Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren baitan parte hartzen duten norbanakoak dira. Bat egin dute Deustualdera, euren auzora, plataformaren informazioa, materiala eta jarduerak zabaltzeko. Lehen mobilizazio bat antolatu dute jada. Azaroaren 26an, larunbata, giza katea osatu dute San Inazioko Levante plazatik Deustuko San Pedro plazara. *bizkaia.ongietorrierrefuxiatuak.info*

Kabiren heriotzaren 25. urteurrena

Joan den urriaren 25ean, 70 bat lagun bildu ziren Jabier Goitia *Kabi-ren* heriotza gogoratzeko ekitaldian. 20 minututan Kabiren bizitza gogoratu eta oroimenaren garrantzia azpimarratu zuten ekitaldian elkartu ziren lagunek Kabi hil zen txokoan, San Inazion. "1991ko urria; Euskal Herria ez zen aske, langileak ez ziren euren bizitzen jabe, kartzelak presoz beteta zeuden... Eta Kabi, eskuartean zerabilen lehergailuak eztanda egitean, hil egin zen", aipatu zuten. Deustun eta Lekeition ere burutu ziren oroimen ekitaldiak aurreko igandean, azaroak 23. Antolatzaileen arabera, "oroimena borroka da; oroimena delako iragana eta etorkizunaren arteko zubia. Euskal Herri askearen alde egingo duten belaunaldi berriei herri honen historia eman behar diegu, zapalkuntzaren aurkako erresistentzia antolatuaren historia, alegia. Bere burura ezagutzen ez duena hutsik dagoelako, eta etsaiek hala desio arren, gu ez gaudelako odolustuta; borrokan aurrera egiteko determinazio, harrotasun eta arrazoiz lepo baino".

prest174web.indd 20 30/11/16 15:27



Urtea: 1951

Txema Luzuriaga

Deustuibarrako zama-makina

Aurrez aurre duzun argazkian oso ondo bereiz daiteke Deustuibarran, Plazatxoaren ondoan (egun Yolanda Gonzalez Plazatxoa), muntatu zuten zama-makina. Berezko propultsioa zuen 'gangil' motako itsasontzia hornitzen ari da zama-makina. Dragak itsasadarretik ateratzen zuen lokatza itsaso zabalean isurtzen zuen gangil izeneko ontziak. Argazkian, Bilbo-Areeta errepide parean, aurreko urtean Kanala zabaltzeko hasitako obran lanean jardun zuen gangila ikus daiteke. Pedro Gilek utzitako argazkian.

prest174web.indd 21 30/11/16 15:27

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!



Zer egingo zenuke emakumeen erasotzaileekin?

Inkesta: Nerea Olaziregi

Jon Alonso
Santutxu

Lehenengo eta behin legea eta zigorrak gogortuko nituzke, zigorrak betearazi, euren identitateak hedabideetan argitaratzea eta gizarteratzerakoan jarraipen estu bat izatea.

Inma Vega
Getxo

Bihotzak eta buruak esaten dutena gauza ezberdina da. Tratamentu berezi bat, psikologikoa eta medikua, pilulekin edo.

Gaizka Aurtenetxe
Zornotza

Errudunak direla frogatzen bada, jendartetik kanporatu eta gero oso jarraipen zehatza eroatea kartzelan daudenean, birgizarteratuko direla guztiz ziurtatu arte han barruan utzi.

Julene Altuna
Zamudio

Behin egiten dutenean zigorra betearazi baina bigarrenez eginda, kimikoki zikiratuko nituzke.

Leire Abad
Santurtzi

Potroetatik eskegiko nituzke herriko plazan, jendearen aurrean.

Iñaki Rodriguez
Santutxu

Pena guztiak bete beharko lituzkete, kartzelan jakina, eta terapia psikologikoa emango nieke.

prest174web.indd 23 30/11/16 15:27

>> DEUSTUK SALATZEN DU

DISPERTSIOA, PRESO GAIXOEN EGOERA ETA SALBUESPENEZKO LEGEDIAREN SALAKETA

Eguraldia dela eta, Done Petri plazan egitekoak ziren hainbat ekimen, Herriko Tabernan egin behar izan zituzten azkenean, Deustuko Sare taldeak antolaturiko Dispertsioaren Aurkako Egunean.

Testua: Jaione Ayestaran - **Argazkiak:** Garazi Calvo

Euritsu hasi zen azaroaren 5a Deustun. WhatsApp bidez helarazitako mezu batek programazioaren aldaketaren berri eman zien deustuarrei. Euria zela eta, goizerako antolatuta zeuden umeen puzgarriak eta Mikeldi eta Bihotz Alai taldeen dantzaldia bertan behera geratu ziren. Hala, azkenik, ordu bat t'erdietan ekin zioten Dispertsioaren Aurkako Egunari, Deustu Kantari ekimenaren eskutik. Bazkalordura arte, auzoko tabernetan zehar ibili zen bertaratu zen oro, Berbaizu Euskara Taldeko Kantugintza taldekoek girotutako poteoan.

Eguerdirako, deustuarrak Herriko Tabernara hurbildu ziren. Berez plana Done Petri plazan bazkaltzea bazen ere, tabernan bertan bazkaldu behar izan zuten aurrez izena emana zuten ia 130 lagunek. Indaba-jan eder batek indarrak eman zizkien deustuarrei, egunarekin jarraitu ahal izateko.

Postrearekin batera, elkartasun bingorako lehen txartelak ere saltzen hasi ziren eta berehala, zenbakiak bihurtu ziren Herriko Tabernako protagonistak, azkenean, hainbat deustuarren artean presoek eginiko sari guztiak banatu arte.

Arratsaldean musikak hartu zion lekukoa bingoari. Lehen kontzertu batek jarri zituen deustuarrak dantzan, eta aurreikusi bezala, zazpietan manifestazioa egin zuten auzoko kaleetan zehar, 'Dispertsioari stop! Preso gaixo larriak etxera!' lelopean. Pankartaren atzetik, trikitilari eta panderojoleek ireki zioten bidea 250 pertsona inguru bildu zituen manifestazioari.

Behin manifestazioa amaituta, Donostiako Antiguo auzoko Koxka taldeak girotu zituen eguneko azken orduak. Euren bertsioekin eman zioten amaiera deustuarrek salaketa egunari, baina ofizialki soilik. Izan ere, nahi izan zuenak gauean zehar ere parrandarekin jarraitzeko aukera izan zuen Herriko Tabernan bertan.

Deustuko Sare taldeak bere aldetik, deustuarren parte-hartzea eskertu nahi izan zuen, eguraldi eskasaren gainetik, azkenean, egun aurrera ateratzea lortu baitzuten. Hala ere, hasierako ideia beste bat zela gogoratu zuten. Hain zuzen, "gaixo dauden presoen eta dispertsioa pairatzen dutenen egoera auzo mailan bistaratzea, ekitaldiak plazan ospatuz, eta ez Herriko Tabernan". Horregatik, aurrerago ekitaldi berriak egon daitezkeela aurreratu dute antolatzaileek.

prest174web.indd 24 30/11/16 15:27

Azaroaren 14tik urtarrilaren 31ra

III. Galde ketaun

Gazte lehiaketa

SARIAK

ZOZKETAK

APP

Jolastu ikasi irabazi

Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO

nontzeberri kultura sarean

Laguntzailea

museo marítimo ría de bilbao
bilboko itsasadarra itsas museoa

www.galdeketaun.eus

NEUMÁTICOS MITXEL

URRIAK 1 IREKITA!!

Blas de Otero 59, Deustu [Ikastetxearen aurrean]

Kontaktua:
652 75 22 08
neumaticosmitxel@gmail.com

CONFORT auto

HANKOOK masters

>> MUSIKA

AHOTSA, GITARRA ETA KEMENA

"Kontzertu batzuk" atera zaizkio urte bukaera bitartean Beñat Antxustegi, besteak beste, Deustun bat, abenduaren 2an Mullerrenean.

Testua: Lur Mallea - **Argazkiak:** Physis versus Nomos / Maria Elizalde Lago / Iban Idigoras Uranga - **Muntaia:** Gartxot Unsain

Buruan "beti" darabil abestiren bat Beñat Antxustegik. Ideia berriren bat bururatzen zaionean, gitarra esku artean hartu eta telefono mugikorarrekin grabatzen du "aurrerago lantzeko", bakarka zein taldean. Izan ere, Beñat aritua den pertsona da. Berak sortutako Physis versus Nomos taldean ez ezik beste hainbat taldetan ibili da eta dabil, besteak beste, Xikinkei, Txema, Bi Zaldi eta Pelax taldean. Bi formatuak ditu gustuko. Bakarkakoaren "intimismoa", "oso baxu" jotzeko aukera eta isiluneak atsegin ditu. Baita taldeak ematen duen "indarra", "giro umoretsuagoa" eta "seguratasuna" ere.

Physis versus Nomos bezala aurten kaleratu duen 'Saudade é fatal 2' diskoan (2016) bildutako abestiak dira Deustun aurkeztuko dituenak abenduaren 2an, ostirala, Mullerrenean. Berbaizu euskara elkarteak antolatu duen kontzertua Physis versus Pelax formatuan eskainiko dute Beñat Antxustegik eta Unai Pelayok (Pelax). Kontzertua "erdibana" egitea pentsatu dute. Hamabi bat abesti joko dituzte guztira, erdiak Physis versus Nomosenak eta beste erdiak Pelax taldearenak. Mullerreneara hurbiltzen denak bi gitarra eta bi ahots entzungo ditu. "Musika oso lasaia une askotan eta aldi berean indartsua nahiko garrasi egiten dugulako biok", dio Antxustegik. Jendea "gustura" utziko duen ziurtasunaz mintzo da, "bi proiektu interesgarri" izaki, zuzenekora "animatzen denak gozatuko duelako".

Harerra "oso ona" izan du 'Saudade é fatal 2' Physis versus Nomosen hirugarren lanak. Kritikak ere "onak" izan dira. Lehen edizioko 500 kopiak agortuta, bigarren edizioan beste hainbeste kopia ateratzea erabaki du Beñatek. "Batez ere", kontzertuetan saltzen ditu, "oso merke", bosna eurotan. Bere esanetan, "gastuak ordaintzeko, batik bat". Salmentak izan duen arrakastan funtsezkoak izan dira bai prezioa bai "marketing agresiboa". Entzuleei 'diskazoa' bat dela esanez egiten du marketinga Beñatek, zuzen eta artez. Pozik dago emaitzarekin, "oro har jendea diskoa erosiz laguntzeko prest" agertu delako. Interneten ere entzungai dago, nahi duenarentzat.

Kutuntzat du egileak azken diskoa. Abesti bakoitzak dakartza berarekin letra, musikari parataideen zerrenda eta iruzkin bat. "Gauza kuriosoren bat abestiak nondik datozen ezagutzeko eta entzulea obraren barruan sartzeko". Ez du bakarrik egin, "laguntza handia" jaso du. Beñatek Alberto Lizarralderen izena nabarmentzen du. Nahasketen arduraduna eta "gitarrarekin pilo bat lagundu" dion pertsona. Bestelako kolaborazioak ere izan ditu, "piloa bat", eta denei "eskerrak" eman beharra sentitzen du.

Sariak, ikasketak eta kolaborazioak

Bi aldiz eskuratu du UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak ematen duen Mikel Laboa saria Beñatek. 35 urtetik beherako artisten lana saritzen duen aitortza. "Doinuaren maila musikala, hitzaren maila poetikoa, eta doinuaren eta hitzaren arteko loturaren egokitasuna", kontutan hartzen ditu epaimahaiak. 2013an *Zu gabe* abestiarekin eta iaz *Ohm* abestiarekin eskuratu zuen. Beste hainbat lehiaketetan parte hartu badu ere, "ez didate kasurik egin", horregatik espero ez zuen "errekonozimendua" izan da. Are gehiago Antton Valverde eta Xabi San Sebastian bezalako musikari

prest174web.indd 26 30/11/16 15:27

"errespetagarriak" izan direnean epaimahaian. Eta horrek aurrerago egingo duen lanari "seriotasuna" emango diola uste du.

Egindako lanak badu zerikusia irabazitako sariekin. Sariak dakarren dirua Zaldibiko HaizeBazterrak sorkuntza espaziora bideratu baitu. "Diruak aukera eman digu gero eta independenteago izateko, gure kantuak grabatzeko kalitate handiarekin eta talde gehiagori eta talde lagunei laguntzeko euren kantuak grabatzen".

Ingeniaritza ikasten du Beñatek, eta bertan ikasitakoa ere bideratzen du musikara. Esaterako, elektronika "pilo bat" ikasi du, eta grabazioak "hobetzeko" eta ekipoen "mantenimendua egiteko" baliatu du.

Musika gomendio emaile gisa ere aritzen da *Gaztezulo* aldizkarian eta "aspaldian apur bat abandonatuta" duen *Topatu* atariko blogean. Gustuko du talde berri eta gazteen musikari erreferentzia egitea. "Beti nabil talde berriak eta ateratzen diren gauzak entzuten. Saiatzen naiz hemen inguruko taldeei leihotxo bat eskaintzen". Ez baita garai erraza hasiberrientzat. "Batik bat, ez baduzu managerrik edo komunikabideetan ez bazaitu inork ezagutzen. Hori da nire ekarpena".

Ari da, bai, jendea "gauza interesgarriak" egiten. Arazoa da "publikoaren erantzuna kaskarra dela musikari ezazagunekin". Ondorioz, aretoetako arduradunek gazte eta hasiberriei "ez diete baldintza onik eskaintzen", eta askoz errazagoa duten gaztetxeen sarera jo behar izaten dute. Eta asko dira "aitabitxirik ez dutenak edo Euskadi Gaztearen edota disketxe baten babesa ez dutenak". Musikari askoren kezka horrek eraman ditu Beñat eta beste lagun asko Ez Dok Amaitu proiektua sortzera. Norbanako eta taldei "bultzada ematea" du xede. Gasteizen, esaterako, bost talderen kontzertua antolatu dute jada. Beste ideia eta asmo batzuk ere badauzkate esku artean. Besteak beste, "kontzertuetako antolatzaileen eta entzuleen arteko jarrera nolakoa izan beharko lukeen lantzen ari gara". Dekalogo bat osatzeraino. Ez Dok Amaitu ari da "pixkanaka-pixkanaka gauzak egiten". *physisversusnomos.bandcamp.com*

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

PATATA TORTILLA

Ramon y Cajal kaleko La Parra tabernara jo dugu oraingo honetan. Done Petri eliza atzealdera. Manu sukaldari eta tabernariak jator hartu gaitu, eta tabernako pintxo izarrak aurkeztu dizkigu: patata tortilla eta urdaiazpiko eta gaztadun patata tortilla.

Zailtasun maila: txikia

Egiteko denbora: 40 minutu

Prezioa: 1,50€

Berezitasuna: pintxo aukera zabala eta prezio txikiak

Kontu batzuk

25 urte daramatza Manuk "egunero" patata tortillak prestatzen, eta nabari da eskarmentua. "Poliki-poliki egitea, hori da trukoa", dio. Guztira, 40 minutu ematen ditu patatak zuritzen hasten denetik tortilla platerean prest ateratzen duen arte. "Pil-pil eta bor-bor" prozesuak funtsezkoak direla nabarmentzen du. 12 kilo arrautza eta kilo erdi patata erabiltzen ditu aldiro. Tortillari buelta emateko, "onena" plater handi bat erabiltzea gomendatzen du.

La Parra tabernako Manu

LA PARRA

LA PARRA TABERNA

Ramon y Cajal 32 - DEUSTU

94 475 12 06

facebook.com/La Parra bar Deusto

Astegunetan: 10:00-15:00 / 17:30-itxi arte

Asteburutan: 18:00-03:00

prest174web.indd 28 30/11/16 15:27

Eta gehiago

Patata tortilla kipula "apur batekin" prestatzen du Manuk. Apetito handiko bezeroentzat, tortilla beteagoa prestatzen du gazta eta urdaiazpikoa erantsiz.

Txistorra ogitartekoek eta "lau pisuko sandwichek" ere arrakasta handia dute hamaiketako orduan.

Ostiral eta asteburutan bezero mota zeharo aldatzen da La Parran. Gazteak dira jaun eta jabe. Lagun kuadrillak batez ere. Asko saskibaloi jokalariak. Bertan elkartzen dira La Salle, Salesianos edota Indar Saskiko jokalariak "egarrituta". Besteak beste, 9 garagardo desberdin botilan eta Mohu eta La Salve garagardoa kupelean dituzte aukeran.

OSAGAIAK

Arrautza
Patatak
Kipula
Gazta
Urdaiazpikoa
Ogia
Olioa
Gatza

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO → Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

prest174web.indd 29 30/11/16 15:27

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

BERTA ALCALDE ARRIZABALAGA

Editorea, irakurlea eta musikazalea

GRAND FINALE BAT ETA SINGLEAREN BOTEREA

Ailegatu da azken gomendioa, iruzkina, edo kritika egiteko unea. Berriro ere negua gainera erortzear dugu. Euria, hotza… eta jazz musika entzuteko unerik onena, malenkonia esaten dioten horregatik (mesedez, Bilbo maite duzuenok hartu aterkia eta irten euripean Miles Davis eta Charlie Parkerren 1947ko *Out of nowhere* entzutera. Horrez gain, Woody Allenen filmetako soinu-bandak ere salgai daude sei CDko *pack* batean, oso egokiak udazken-negurako. Eta filmaren bateko soinu-banda aurkitu nahi baduzue, tresna interesgarria da TuneFind).

Duela aste batzuk Arriaga Antzokian izan nintzen, kontzertu batean. Eserita ikusi behar genuen uneko talde *hipster*-aren kontzertua: Manelena. Nire ustez, faena itzela da antzokian eserita eta apenas komentariorik egin gabe kontzertua entzutea, baina ez zegoen beste aukerarik. Jendeak hoztasunez hartzen ditu antzokiko emankizunak, formaltasun puntu bat dutelako (eta arretarik ez galtzeko moduko prezioa ordaindu dutelako). Horrela, guztiok isilik, serio eta aulkitik altxa gabe igaro genituen ordu eta laurden.

Musikariak ere ez zeuden halako pasibotasunera ohituta, eta behin edo bitan eskatu ziguten, sotilki, animatzeko. Jendea altxatu egiten zen, dantza apur bat egin eta berriro eseri, antzokian ez delako halakorik egiten. Hala egon ginen azken uneetara arte, orduantxe jo zutelako disko berriko single ezaguna (*Sabotatge*). Guztiok ziztu bizian zutik, alai eta dantzari jarri ginen, aurreko guztia existitu izan ez balitz bezala. Horren harira, galdera bat: zer dela eta singlearen botere hori? Radioformularen jonkiak al gara, beste batzuek guretzako aukeratutako produktuak (= *single*ak) bakarrik balioesteko? Hortxe hausnarketarako perla bat, eta eskari bat: aztertu beste aukera eta iturri batzuk, eta pentsatu zeure kabuz, ez gaitezen "bai" edo "ez", "gustatzen zait" edo "gorroto dut" bezalako dikotomia hutsaletan geratu.

Segi musikaz (edo arteaz, literaturaz) gozatzen, halakorik gabe, bizitza hutsa izango litzatekeelako (F. Nietzschek esana). Hurrengo arte eta bejondeizuela!

LUISA LEDESMA

Elorri bertso-eskolako kidea

EUSKARAREN EGUNA

Edonora joatean
ta hitz egitean
ikastolan, etxean
ta ere kalean
txikiak eta handiak
euskara ahoan
Euskal Herri guztian
ta mundu osoan.

Abenduak hiruan
daukagu ospatzeko
euskararen festa hau
denok mintzatzeko
asko espero dugu
eguna etortzeko
biltzen gara guztiok
gehiago entzuteko.

prest174web.indd 30 30/11/16 15:27

UDA GOIENEKO OSTERA

sarrera: 12 €



ANJE DUHALDE
NIKO ETXART
ABENDUAK 2 BILBO
BBK Sala - 20:00



sarrera: 10/12 €

WILLIS DRUMMOND
INOREN ERO NI
ABENDUAK 22 BILBO
Kafe Antzokia
21:30

SARRERAK:

k Sarreren salmenta: www.kutxabank.es — BBK ordizarako kutxazainak

ANTOLATZAILEA:

euskaltzaleen topagunea

BABESLEA:

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

LAGUNTZAILEAK:

SALA bbk

kafe antzokia www.kafeantzokia.eus

TOKIKOM

berria

Noticias de Bizkaia Deia

GARA

KULTURA BARRUTIK
PROGRAMACIÓN CULTURAL EN DISTRITOS

ABENDUAREN 1ETIK 30ERA
DEL 1 AL 30 DE DICIEMBRE

1. BARRUTIA
ABENDUAN KULTURA BARRA-BARRA

ORDUA / HORA: 19:30

1	(equena/jueves)	DEUSTUKO UDALTEGIA // ATX TEATROA Fakiu! Antzerkia (helduentzat). 65'
12	(astelehena / lunes)	DEUSTUKO UDALTEGIA // UXUE ALBERDI, ONINTZA ENBEITA, JONE URIA eta MIREN AMURIZA. Bertsolariak. 75'
14	(equaztena / miércoles)	SAN INAZIO-IBARREKOLANDA UDALTEGIA // VINCENT ZARAGOZA eta ELUR ARRIETA. Perkusbika. Musika. 70'
15	(equena/jueves)	DEUSTUKO UDALTEGIA // LAUKA TEATROA Amodioaren ziega. Antzerkia (helduentzat). 60'
19	(astelehena / lunes)	DEUSTUKO UDALTEGIA // Encuentro poético con KARMELE JAIO. Literatura.
21	(equaztena / miércoles)	SAN INAZIO-IBARREKOLANDA UDALTEGIA // POMPOM ANTZERKI TALDEA Trotamundis. Antzerkia (4 eta 11 urte artekoentzat). 60'
22	(equena / jueves)	DEUSTUKO UDALTEGIA // ZINEBIKLUB – Euskal film laburren proiekzioa. Zinea 78'
26	(astelehena / lunes)	DEUSTUKO UDALTEGIA // BEHIBI´S TEATRO ANTZERKIA Murren bidaia. Txotxongiloak (5 urtetik gorakoentzat). 45'
28	(equaztena / miércoles)	ARANGOITIKO UDALTEGIA // TOR MAGOA Hator magiara Magia (4 eta 10 urte artekoentzat). 60'
30	(barikua / viernes)	DEUSTUKO UDALTEGIA // TXAN MAGOA Ezer ez da dirudiena. Magia (adin guztietakoentzat). 75'

www.kulturabarrutik.eus

ANTOLATZAILEA ORGANIZA: Bilbao Udala Ayuntamiento

LAGUNTZAILEA COLABORA: ZINEBI

DEUSTUKO UDALTEGIA: DEUSTO ● SAN INAZIO-IBARREKOLANDA UDALTEGIA: SARRIKO

prest174web.indd 32 30/11/16 15:27